



# Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren jarduera-memoria (FCO2)

2023ko URTARRILA

NATURKLIMA GIPUZKOAKO KLIMA-ALDAKETAREN FUNDAZIOAK EGINA

## Aurkibidea

1. Aurrekariak eta xedea.....	3
2. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren adierazle orokorrak (FCO2) .....	3
3. 2022an erregistratutako konpentsazioak.....	3
4. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren (FCO2) konpentsazio-proiektuen egoera .....	8

## Taulen aurkibidea

1. Tula. Konpentsatutako karbono-aztarnaren banaketa, jarduera-sektorearen arabera.	4
2. Tula. 2022an konpentsatutako aztarnen kopurua, aztarna kalkulatzeko urte bakoitzerako.....	5
3. Tula. Urtean kontabilizatutako isuriak, irismen-motak eta urteko konpentsatutako isuriak.....	6
4. Tula. Irismen-motaren arabera kontabilizatutako eta konpentsatutako isuriak, jarduera-sektoreen arabera.....	7

## Irudien aurkibidea

1. Irudia. Aztarnen ehunekoa, enpresaren tamainaren arabera.....	5
2. Irudia. Konpentsatutako isurien ehunekoa sektoreka. ....	8
3. Irudia. Etxolazarreta lurzatiaren kokaluekua.....	9

## 1. Aurrekariak eta xedea

2022. urtearen hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioaren bidez (aurrerantzean, Naturklima), eredu bat jarri zuen martxan, eragile publikoek eta empresa-sektoreak klima-aldaketaren aurkako borrokan parte har dezaten.

Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtza (FCO<sub>2</sub>) borondatezko tresna gisa sortzen da, horren bidez, isuriak aitortzera behartuta egon ezarren, berotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzekp aukera dute erakundeek. Azken helburua de 2050ean 2005arekin alderatura %80 isuri gutxiago izango dituen lurralde bat lortzen laguntzea, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategian- Klima 2050<sup>1</sup>- ezartzen den bezala, karbono-hustubideetan xurgatuz arindu ezin diren isuriak konpentsatuz (gutzizko isuriaren %10 inguru). Beraz, FCO<sub>2</sub> CO<sub>2</sub> arintzen, xurgatzeko gaitasuna lortzen eta Gipuzkoaren erresilientzia lortzen laguntzen duen tresna da.

Epe laburrera, ertainera eta luzera FCO<sub>2</sub>-aren bilakaeraren jarraipen zehatza egiteko, adierazleen sistema bat definitu da, honako hauen inguruan egitaratuta: erakundeek karbono-aztarna erregistratzea, gauzatzen diren konpentsazio- (arintzea eta egokitzea) eta xurgatzeko-proiektuak, eta, azkenik, egokitzapen-, erresilientzia-eta multifuntzio-adierazleak. Txosten honen xedea da FCO<sub>2</sub>-n lehenengo urte honetan eginako jarduerari buruzko informazioa biltzea. II. Eranskinean zehaztutako adierazle guztiak eta horiei dagozkien balioak ageri dira.

## 2. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtzaren adierazle orokorrak (FCO<sub>2</sub>)

2022ko FCO<sub>2</sub>aren datu orokorrak hauek dira:

- 10 karbono-aztarna konpentsatuta
- 10 erakundeek beren aztarna konpentsatu dute
- 11.270,64 tn CO<sub>2</sub> konpentsatu dira
- Bi konpentsazio-proiektu egin dira

## 3. 2022an erregistratutako konpentsazioak

### 3.1. Erakundeei buruzko informazioa

#### Erakundeak eta erakundeko konpentsazioak

2022an, **10 erakunderen 10 erakunderen, 10 karbono-aztarna berri, osorik edo partzialki, konpentsatu dira.** Jasotako eta berrikusitako eskaeren emaitza dira inskripzioak. Aztarna

---

<sup>1</sup> Maiatzaren 29ko 18/2018 Foru Dekretua, Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoa Estrategia 2050-Gipuzkoa Klima 2050 onartzen duena.

baliozkotzeko izapideei ekin zien konpentsazio-eskaera bakar bat ez zen inskribatu, erakundeak atzera egin zuelako.

Erakunde batek urte desberdinetako edo hhainbat ekitalditako karbono-aztarna konpentsatzea erabaki dezake, eta, beraz, erakunde kopurura konpentsatutako aztarnena baino txikiagoa izan daiteke. Lehen urte honetan ez da horrelakorik gertatu, eta erakunde bakoitzak karbono-aztarna bakarra konpentsatu du.

Jarduera-motaren arabera, 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN 2009) kodean jasotako 21 sektoreetatik seiren aztarnak konpentsatu dira. Zehazki, sektore bakoitzeko bi aztarna konpentsatu dira lau jarduera-sektoreetan: 'Eraikuntza', 'Manufaktura-industria', 'Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuak eta motozikletak konpontzea', 'Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak' eta sektore bakoitzeko aztarna bat 'Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak' eta 'Beste zerbitzu batzuk' ataletarako.

1. Taula. Konpentsatutako karbono-aztarnaren banaketa, jarduera-sektorearen arabera.


Jarduera-sektorea	2022an konpentsatutako karbono-aztarnen kopurua
F. Eraikuntza	2
C. Manufaktura-industria	2
G.Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuak eta motozikletak konpontzea	2
R. Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1
S. Beste zerbitzu batzuk	1

I.Eranskinean ikus daiteke 2022an FCO<sub>2n</sub> Karbono-aztarna konpentsatu duten erakundeen zerrenda, jarduera-sektorearekin eta konpentsatutako aztarnaren urtearekin.

#### Erakundeen tamaina

Karbono-aztarna konpentsatu duten erakundeen tamainari dagokionez, empresa handiak (% 40) eta empresa txikiak (% 30) dira nagusi, nahiz eta ETE deiturikoen taldekatzea kontuan hartzen den, empresa handien parekoak dira.

1. Irudia. Aztarnen ehunekoa, enpresaren tamainaren arabera.



### Erakundeetako murrizketa-planak

Karbono-aztarna konpentsatu duten hamar erakundeetatik zortzik murrizketa-planak dituzte.

### 3.2. Konpentsatutako karbono-aztarnei buruzko informazioa

Atal honetan, 2022. Ekitaldian konpentsatutako karbono-aztarnei buruzko informazioa zehazten da.

### Kalkuluaren urtea

Karbono-aztarnak konpentsatu dira azken hiru urteetarako (2020, 2021 eta 2022). Konpentsatutako aztarna gehienak (7) 2021ko ekitaldian isuritako emisioei dagozkie, hau da, erakundearen Karbono-aztarna kalkulatzeko azken urte osoari. Bi erakundek 2020ko ekitaldiko aztarna konpentsatu dute eta erakunde batek 2022rako aztarna konpentsatu du.

2. Taula. 2022an konpentsatutako aztarnen kopurua, aztarna kalkulatzeko urte bakoitzerako.

	2020	2021	2022
<b>Karbono aztarna kopurua</b>	2	7	1

### Irismenak

Karbono-aztarna konpentsatzeko gutxienerako baldintza 1+2 irismenerako isurien kalkulua da. Halaber, 3. Irismena kalkulatzeko gomendatzen da, hau da, erakunde baten balio-katetik datozenak eta heren kontrolpean ez daudenak; izan ere, nahiz eta ez den nahitaezko baldintza, irismen horrek, kasu askotan, isuriekiko ehuneko handia eragiten du.

2022an konpentsatutako 10 karbono-aztarnetatik, **6 1+2 irismenari dagozkio, eta 4 erakundek 3. Irismen-maila badute.**

2. irismena 0 balioa duten karbono-aztarnak aztertuta, ondoriozta daiteke jatorri berriztagarriko bermea duten elektrizitate-hornidurak dituztela. Bi izan dira 2022an balio horrekin konpentsatutako karbono-aztarnak.

#### Berotegi-efektuko gasen isuriak

2022an, erakundeek **11.270,64 tn CO2** kopentsatu dituzte guztira, kontabilizatutako 35.719,2 CO2 tonetatik, hau da, emandako emisio guztien % 31,6. Karbono-aztarnaren konpentsazio-portzentajeari dagokionez, **6 karbono-aztarnaren % 100 kopentsatu da.**

Erregistratutako isurien datua gutxi gorabeherakoa da; izan ere, erakunde baten 3. Irismen-isuriak beste erakunde baten 1+2 irismen-mailakoekin bat etor daitezke. Bestalde, kontuan hartu behar da karbono-aztarna konpentsatu duten erakunde batzuek jarduera dutela atzerrian, eta, beraz, emisio horiek guztiak ezin zaizkio erakundeak Gipuzkoan duen jarduera esklusiboari egotzi.

Irismenaren arabera erregistratutako isuriek 3. Irismenaren aldeko banaketa erakusten dute. Garrantzitsua da azpimarratzea isuri horiek ez direla nahitaez jakinarazi behar, eta erakundeak definitutako zeharkako emisioei dagozkiela, bere jardueraren arabera bere karbono-aztarnan sartzea erabakitzen baitu ( adibidez, langileak bere lanpostura joatea, kanpoko baliabideak erabiltzea, lehengaiak garraiatzea, hirugarren produktuak erabiltzea, etab.). FCO2-aren emaileek aitortutako isurie dagokionez, **3 irismeneko isuriak % 62,8 dira, eta 1+2 irismenekoak, berriz, gainerako % 37,2.**

#### 3. Taula. Urtean kontabilizatutako isuriak, irismen-motak eta urteko konpentsatutako isuriak.


KALKULUAREN URTEA	1+2 IRISMENA (tCO <sub>2</sub> eq.)	3 IRISMENA (tCO <sub>2</sub> eq.)	GUZTIZKO ISURIAK (tCO <sub>2</sub> eq.)	KONPENTSATUTAKO CO <sub>2</sub> TONAK
2020	6.824,00	15.991,00	22.815,00	6.578,00
2021	6.394,67	6.450,08	12.844,75	4.632,64
2022	60,00		60,00	60,00
	<b>13.278,67</b>	<b>22.441,08</b>	<b>35.719,25</b>	<b>11.270,64</b>

4. Taula. Irismen-motaren arabera kontabilizatutako eta konpentsatutako isuriak, jarduera-sektoreen arabera.

Jarduera sektorea	Aztarnen kopurua	1+2 Irismena (tCO <sub>2</sub> eq.)	3 Irismena (tCO <sub>2</sub> eq.)	Gutzizko isuriak	Kompentsatutako CO <sub>2</sub> tonak
F. Eraikuntza	2	6.824,00	15.991,00	22.815,00	6.578,00
C.Manufaktura-industria	2	753,57	1.567,2	2.320,77	1.470,97
G.Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuak eta motozikletak konpontzea	2	5.114,10		5.114,10	312,03
R. Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2	578,12	4.882,43	5.460,55	2.900,81
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1	6,13		6,13	6,13
S. Beste zerbitzu batzuk	1	2,25	0,45	2,70	2,70

4.taulan, 2022an jarduera-sektore bakoitzerako konpentsatutako isuriak irismen bakoitzerako ageri dira. Kontuan hartu behar da 3.mailako emisioen kalkulua borondatezkoa dela; beraz, kopuru horiek ez dute informazio osoa ematen. 1+2 irismen-maila duten isurial kontuan hartuta, erregistratutako isurietan gehien eragiten duten sektoreak 'Eraikuntza' (% 51,4) eta 'Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motorduen eta motozikleten konponketa' (% 38,5) dira, bakoitzak bi aztarna konpentsatu dituela. Gutzizko isuriak kontuan hartuz, 3.irismena barne hartuta, 'Eraikuntza' (% 63,9), 'Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak' (% 15,3) eta 'Handizkako eta txikizkako merkataritza' (% 14,3) dira isurietan gehien eragiten duten sektoreak.

## 2. Irudia. Konpentsatutako isurien ehunekoa sektoreka.



Konpentsatutako isuriei dagokienez, 'Eraikuntza' eta 'Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak' sektoreek konpentsatu dituzte emisio gehien (% 58,4 eta % 25,7, hurrenez hurren).

## 4. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtzaren (FCO<sub>2</sub>) konpentsazio-proiektuen egoera


2022an, lehen konpentsazio-proiektua egin da lurraldean.

2022ko abenduan egindako lanetan, sutea izan zuen baso-eremu bat lehengoratu zen, baso masa berrezartzeko. Jarduketaren xede izan den azalera basokoa zen alde zuzenetik, eta jarduketa horren bidez, azalera horrtan baso izaera berrezarri da, habitat naturala berreskuratzeko, espezie autokotinoekin landareztatuz.

Basoa lehengoratzeko proiektua Etxolazarreta lurzatian egin da, zehazki, 2021eko otsailaren suak hartutako lursailen. Proiektua Irungo Udalaren lursail publikoetan dago. Gainera, lurzati hori Aiako Harria Parke Naturalaren eta Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) barruan dago.



### 3. Irudia. Etxolazarreta lurzatiaren kokaluekoa.



Proiektuaren **azalera 20 ha-koa da** eta ezarritako iraupena 30 urtekoa. Landaketa mistoa egin da **inguruko espezie autoktonoekin**. Zehazki, espezie hauetako aleak landatu dira: *Quercus robur*, *Quercus pirenaica*, *Quercus petraea*, *Corylus avellana*, *Betula pubescens*, *Pyrus cordata*, *Sorbus aria*, *Prunus avium*, *Acer pseudoplatanus*, *Alnus glutinosa*, *Fraxinus excelsior*, *Fagus sylvatica*, *Malus silvestris* *Ilex aquifolium*. Gainera, espezie inbaditzaileak kendu dira eta bertako landare-estalkia kontserbatu da.